

Prentsa oharra

Nota de prensa



UDALAK UR ITURRIAK ITXI DITU SEGURTASUN HIGIENIKOAGATIK

Donostiako Udalak hiriko isurbideak ixtea erabaki du, segurtasun higienikoko neurri gisa.

Marisol Garmendia Espazio Publikoko zinegotziak adierazi duenez, "Haurrak kalera irten daitezkeen honetan, edateko uraren kalitate arazoak ekidin nahi ditugu. Iturri horietako askok asteak daramatzate ia erabili gabe, eta gutxi erabiltzeak arazoak eragin ditzake. Gainera, haurrak iturrietara hurbiltzen dira eta edaten dutenean txorrotak ukitu ditzakete ahoarekin edo eskuarekin; beraz, kutsadura-foku potentziala izan daitekeela uste dugu".

Etxeko ura botilaratuta eramatea eta ontzia ohiko edukiontzi horietara botatzea gomendatzen da.